

Los pueblos de Guatemala reclaman el fin del Pacto de Corruptos

Guatemala es conocido como el país de la eterna primavera, territorio donde conviven los pueblos mayas, xinca, garífuna y mestizos. Sin embargo, Guatemala hoy está envuelta en continuas protestas ante un proceso que pretende el golpe de Estado por parte de aquellos poderes que siempre dominaron el país.

En el mes de junio se realizaron las elecciones legislativas y la que fue primera vuelta para la elección de la presidencia y vicepresidencia. En sus primeros pasos este proceso inició mal pues utilizando diferentes subterfugios se prohibió una de las candidaturas populares, la encabezada por la indígena mam Thelma Cabrera y el exprocurador de Derechos Humanos Jordán Rodas, por el Movimiento para la Liberación de los Pueblos. El Estado guatemalteco demostraba así estar diseñado para negar la participación de los pueblos indígenas y de los sectores populares.

El siguiente paso se produce el pasado 20 de agosto, cuando tuvo lugar la segunda vuelta del proceso electoral, entre el Movimiento Semilla (Bernardo Arévalo) y la Unidad Nacional de la Esperanza. El triunfo del primero (58% de los votos) ha supuesto la activación de una serie de medidas que buscan abiertamente el golpe de Estado y frenar así el proceso de relevo presidencial que debe darse en el mes de enero de 2024. Desde ese momento la Fiscalía General, de la mano del Ministerio Público, activó toda su maquinaria para ilegalizar a Semilla o alegar fraude en el proceso electoral.

Aunque las cabezas visibles son la Fiscal General Consuelo Porras y otros hipotéticos servidores públicos, es el denominado “pacto de corruptos” quien verdaderamente opera en este proceso golpista. Ese pacto de corruptos se refiere a la red de poderes económicos, judiciales y políticos, que incluye funcionariado, políticos, militares, jueces y fiscales, empresarios y estructuras criminales que han colonizado el sistema institucional en Guatemala desde hace, por lo menos, una década, siempre en favor de sus intereses de poder político y económicos.

En el ámbito de las libertades, la represión ejercida en estos últimos años arroja cifras cada día más graves. Durante los dos últimos años del gobierno de Alejandro Giammattei, se han documentado un total de 2.057 agresiones contra personas defensoras de derechos humanos, 531 denuncias por feminicidios y se han documentado 211 agresiones contra operadoras/es de justicia (datos de UDEFEGUA). La captura institucional y ampliación de la impunidad en el país ha supuesto un aumento en las agresiones contra operadores y operadoras de justicia generando que actualmente haya más de 30 personas en el exilio, y algunos otros en las cárceles guatemaltecas por sus intentos de investigación de casos de corrupción.

Ante esta grave situación, Bernardo Arevalo, presidente electo, ha suspendido el proceso de transición de gobierno con el presidente saliente Alejandro Giammattei y presentado una acción de amparo en la Corte Suprema de Justicia contra la Fiscal General, Consuelo Porras, y otros jueces que la respaldan y acompañan

Así, este contexto de nula credibilidad del actual Estado de Guatemala ha llevado a autoridades ancestrales de los pueblos indígenas, sectores populares organizados y a la ciudadanía en general a manifestarse por el respeto a los resultados electorales y la dimisión de funcionarios señalados por corrupción. A estas demandas, además se suman desde los territorios, organizaciones campesinas y comunidades indígenas que exigen cambios estructurales en el Estado, a través de un proceso constituyente popular y plurinacional. En los últimos días, ha habido ataques armados dirigidos a

todas estas personas que se están movilizandopacíficamente por defender derechos y exigir cambios estructurales en Guatemala, resultandop, por lo menos, cuatro personas asesinadas.

Por todo ello, desde las aliadas de la cooperación y solidaridad internacional vasca expresamos:

- Nuestro rechazo a las acciones inconstitucionales realizadas por la Fiscal General Consuelo Porras y otros aparentes operadores de justicia y nos sumamos a la demanda generalizada que exige sus dimisiones por sus intentos para invalidar los resultados del proceso electoral.
- Nuestra solidaridad y compromiso con la población guatemalteca que se está movilizandopara conseguir una nueva Guatemala y a todas las organizaciones y personas defensoras de derechos humanos colectivos e individuales, que trabajan por una vida digna de ser vivida para todas y todos.
- Exigimos a todos los partidos políticos, órganos gubernamentales e instituciones guatemaltecas que respeten la integridad y los resultados del proceso electoral.
- Recordamos que el respeto de la independencia del poder judicial, el pluralismo político y la libertad de expresión son derechos fundamentales y pilares básicos de la democracia y el Estado de Derecho entre otras cuestiones.
- Demandamos la defensa del derecho a la protesta social, en la búsqueda de una verdadera democracia en Guatemala.
- Pedimos a las instituciones internacionales y gobiernos, el apoyo para la resolución de esta crisis de forma pacífica y a la OEA (Organización de Estados Americanos) que permanezca en Guatemala hasta que inicie el mandato de quien debe de ser el próximo presidente, Bernardo Arévalo.

Guatemala florecerá y volverá a ser el país de la eterna primavera

Euskal Herria, 20 de octubre de 2023

Listado de Adhesiones

Coordinadora de ONGD de Euskadi

Ezker Anitza-IU

PCE-EPK

LAB

ESK

Steilas

CCOO- Euskadi

EHK-kapitalari planto

REAS Euskadi

Asociación J. A. Freyter-Estudios sobre Violencia Política (AJAFR)

Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe de la Universidad de Deusto

Fundación Ellacuria

Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos IMD

Guatemalako herriek Ustelen Hitzarmenaren amaiera eskatzen dute

Guatemala betiereko udaberriaren herrialdea bezala ezagutzen dugu, maia, xinca, garifuna eta mestizoak elkarrekin bizi diren lurraldea da. Hala ere, Guatemalan gaur egun beti herrialdea menderatu duten boterek sustatutako estatu-kolpea ekarriko duen prozesu baten aurkako etengabeko protestak daude.

Ekainean hauteskunde legegileak, eta lehendakari eta lehendakariorderako hauteskundearen lehenengo txanda egin ziren. Herrien Askatasunerako Mugimenduko (*Movimiento para la Liberación de los Pueblos*) buruak Thelma Cabrera mam indigena eta Jordán Rodas giza eskubideen prokuradore ohia ziren. Baina herriko hautagaitza hori debekatu egin zen, aitzakia desberdinak erabiliz, eta, beraz, hauteskunde prozesua bera gaizki hasi zen. Guatemalako Estatuak hala argi utzi zuen herri indigenen eta sektore herrikoien parte hartzea ekiditeko diseinatuta dagoela.

Abuztuaren 20an hurrengo pausua eman zuten, hauteskunde prozesuaren bigarren txanda ospatu zenean, Semilla Mugimenduaren (*Movimiento Semilla*, Bernardo Arévalo) eta Itxaropenaren Batasun Nazionalaren (*Unidad Nacional de la Esperanza*) artean. Lehengoak irabazteak (botoen % 58) estatu-kolpea bilatzen duten neurriak aktibatzea suposatu du, horrela 2024ko urtarrilean egin behar den lehendakaritzaren erreleboa geldiarazteko. Une hartatik, Fiskaltza Orokorra, Ministerio Publikoaren eskutik, Semilla legez kanpo uzteko edo hauteskunde prozesuan iruzurra salatzeke ahalegin guztiak egiten ari da.

Ikusten ditugun buruak Consuelo Porras Fiskal Orokorra eta beste zerbitzari publiko hipotetikoak diren arren, «ustelen hitzarmena» deitu izandakoa da errealitatean prozesu kolpistaren atzean dagoena. Ustelen hitzarmena botere ekonomiko, judizial eta politikoen sarea da, funtzionarioak, politikariak, militarrek, epaileak eta fiskalak, enpresariak eta egitura kriminalak barne hartzen dituena. Gutxienez jada hamarkada bat, Guatemalako sistema instituzionala kolonizatu dutela, beti haien botere politiko eta ekonomikoen interesen alde.

Askatasunen alorrean, azken urteotako errepresioak gero eta zifra larriagoak azaltzen ditu. Alejandro Giammatteiren gobernuko azken bi urteetan, guztira 2.057 eraso dokumentatu dira giza eskubideen defendatzaileen aurka, 531 salaketa feminizidioengatik eta 211 eraso justizia operadoreen aurka (UDEFEQUAren datuak). Herrialdeko harrapaketa instituzionalak eta inpunitatea zabalteak justizia operadoreen aurkako erasoek gora egitea suposatu du, gaur egun 30 pertsona daude erbestean eta beste batzuk Guatemalako espetxeetan, ustelkeria kasuak aztertzen saiatzeagatik.

Egoera larri hori ikusita, Bernardo Arévalok, hautatutako lehendakariak, kargua uzten duen Alejandro Giammattei lehendakariarekin gobernu trantsizio prozesua eten du, eta babes akzioa aurkeztu du Justizia Gorte Gorenean Consuelo Porras Fiskal Orokorren aurka, baita laguntzen eta babesten duten beste epaile batzuen aurka ere.

Gauzak horrela, Guatemalako Estatuaren sinesgarritasun eza dela eta, herri indigenetako antzinako agintariak, herri-sektore antolatutako eta biztanleria orokorra hauteskundearen emaitzak errespetatzearen alde eta ustelkeriagatik seinalatutako funtzionarioek dimititzearen alde manifestazioak egiten dituzte. Eskaera horiez gain, lurralde, nekazaritza erakunde eta komunitate indigenek Estatuan egitura aldaketak egotea eskatzen dute, herri prozesu konstituziogile eta plurinazionalaren bidez. Azken egunotan, eskubideak defendatzeko eta Guatemalan egitura aldaketak eskatzeko

modu baketsuan mobilizatzen diren pertsonen aurkako arma erasoak egon dira; ondorioz, gutxienez lau pertsona erail dituzte.

Hori guztia dela eta, nazioarteko euskal kooperazio eta elkartasunak ondorengo adierazten du:

- Consuelo Porrás Fiskal Orokorrak eta irudizko beste justizia operadoreek egindako konstituzioaren kontrako ekintzen aurka egiten dugu, eta hauteskunde prozesuaren emaitzak baliogabetzeko saiakera egiteagatik dimisioa eskatzen duen hedatutako eskaerarekin bat egiten dugu.
- Elkartasuna eta konpromisoa azaltzen dugu Guatemala berria lortzeko mobilizatzen ari den biztanleriarekin, baita guztiek bizi ahal izateko bizitza duinaren alde egiten duten erakunde eta giza eskubideak defendatzen dituzten pertsona eta taldeekin ere.
- Guatemalako alderdi politiko, gobernuko organo eta instituzioei integritatea eta hauteskunde prozesuaren emaitzak errespetatzea eskatzen diegu.
- Botere judizialaren independentzia, aniztasun politikoa eta adierazpen-askatasuna oinarritzko eskubideak direla gogorarazten dugu, baita, besteak beste, demokrazia eta Zuzenbidezko Estatuaren oinarritzko euskarriak ere.
- Guatemalan benetako demokrazia lortzeko, gizarte protestarako eskubidearen defentsa eskatzen dugu.
- Nazioarteko gobernu eta instituzioei krisia modu baketsuan konpontzeko laguntza eskatzen diegu, eta AEEri (Ameriketako Estatuaren Erakundea) Guatemalan geratzea hurrengo lehendakaria izan behar duenaren, Bernardo Arévaloren, agintaldia hasi arte.

Guatemala loratuko da eta betiereko udaberriaren herrialdea izango da berriro ere

Euskal Herria, 2023ko urriaren 20a

Atxikimenduen zerrenda:

Euskadiko GGKEen Koordinakundea

Ezker Anitza-IU

PCE-EPK

LAB

ESK

Steilas

CCOO- Euskadi

EHK-kapitalari planto

REAS Euskadi

Asociación J. A. Freyter-Estudios sobre Violencia Política (AJAFR)

Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe de la Universidad de Deusto

Fundación Ellacuría

Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos IMD